



## KOSTUEN EGITURA:

Gure kostu garrantzitsuenak negozio-ereduaren barnean kostu finko eta aldakorretan berezita egongo dira. Kostu aldakorrei dagokionez, garrantzitsua garraioa eta baliabideak lortzea izango da. Garraio on bat izatea ezinbestekoa izango da, gure baliabideak enpresara ekartzeko eta gure produktua bezeroengana eramateko. Hauek, aurretik aipatu bezala aldakorrak izango dira; distantziaren arabera, hain zuzen ere. Izan ere, penintsula barnean 30€ inguru kostatuko zaigu garraioa, baita atzerrian ere, bezeroak kostuen beste erdia ordainduko baitu. Baliabide kantitatea eskariaren araberakoa izango denez, hau ere aldakorra izango da. Produktu bakoitza ekoizteko baliabideen kostua 1.000€ ingurukoa izango da.

Kostu finkoei dagokionez, nagusienak soldatak eta tresneria edota argi indarra izango dira. Gure langileen soldataren hilabeteko batz-bestekoa 1.200€ izango da. Berriz, gailu elektronikoen inguruko kostua, hau da, telefonoaren tarifa hilabeteko gutxi gora behera 20€-koa izango da. Gainera, argi indarra hilabeteko 500€-koa izango da.

Amaitzeko, lokala gurea denez, ez dugu honen inguruko kosturik izango.

Lehen hilabetean, gure produktua ekoiztu eta makinaria programatu ahal izateko, tresneria berezia beharko dugu, 15000€ inguruko kostua izango duena.

## KOSTUA LEHENENGO HILABETEAN:

| BALIABIDEAK          | KOSTUA UNITATEKO              | UNITATE KOPURUA | GUZTIRA           |
|----------------------|-------------------------------|-----------------|-------------------|
| Tresneria            | 15000€                        | -----           | 15.000€           |
| Garraioa penintsulan | 30€/armairuko                 | x500            | 15.000€           |
| Garraioa atzerrian   | 30€/armairuko                 | x500            | 15.000€           |
| Fabrika              | 1000€/armairuko               | x1000           | 1.000.000€        |
| Soldatak             | 1200€/pertonako (bataz beste) | x50             | 60.000€           |
|                      |                               | <b>GUZTIRA:</b> | <b>1.105.000€</b> |

